



ETXEBIZITZAKO
BEHATOKIA
OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA



Etxebizitza bat legez okupatzeko edo etxebizitzarako prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea arautzen duen dekretuaren aurreproiektuan jasotako gai nagusiei buruz herritarrei egindako inkestaren emaitzak

2017ko urria



Etxebizitzarako Eskubide Subjektiboari buruzko inkestaren helburu nagusia hau izan da: Euskal Autonomia Erkidegoko **herritarrek** etxebizitza bat legez okupatzeko edo etxebizitzarako prestazio ekonomikoa (EPE) jasotzeko eskubidea arautzen duen dekretuaren aurreproiektuan jasotako alderdi nagusiei buruz duten **iritzia ezagutzea**.




Inkestako emaitzak kontuan hartuta, dekretu hau diseinatu eta martxan jartzeaz arduratu diren pertsonen **hobetu daitezkeen alderdiak identifikatu** ahal izango dituzte, herritarren iritzietan oinarrituta.

Partaidetza une oro irekia izan da, herritarren partaidetzarako **ETXEBIZITZA** plataforma baliatu baita. Hala ere, **Etxebide-Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuko erregistroan inskribatuta** dauden etxebizitza publikoaren eskatzaileei zuzendu zaie batez ere prozesua.


Inkesta 2017ko irailaren 21ean argitaratu zen, eta irekita egon da urriaren 25era arte. Epe hori igarotakoan, guztira **1.509 herritarren iritziak** jaso dira.




Hona hemen parte hartu duten partaideen profila:




1. BLOKEA: ETXEBIZITZARAKO ESKUBIDE SUBJEKTIBOAREN TITULARRAK




Zer iruditzen zaizu eskubidearen titularra izateko Etxebizitza Babestuen eta Zuzkidura Bizitokiaren Eskatzaileen Erregistroan gutxienez 3 urtez inskribatuta egon beharra alokairuan?




Zer uste duzu eskubidea lortzeko jarritako gehieneko diru-sarrerari buruz? (Urteko 15.000 € arteko diru-sarrera hiru kide edo gehiagoko bizikidetz-unitaterako; 12.000 € artekoa bi kideko bizikidetz-unitaterako, eta 9.000 € artekoa norbera bakarrik bada).



Ados al zaude EAeko udalerriren batean erroldatuta dauden eta atzerriko nazionalitatea duten pertsonen, egoitza-baimena eduki gabe ere, eskubide horren titularra izateko aukera edukitzearekin?




Azaldu eskubide hau izateko zenbateko lehentasuna emango zeniekeen honako kolektibo hauei (1: batere lehentasunik ez; 4: erabateko lehentasuna)




Azaldu (1-4 bitarteko balorazioa emanda) ados zauden ala ez kasu hauetan salbuespena egitearekin, etxebizitzaren baten titular direnek ere eskubide hau izateko (1: ez nago batere ados; 4: erabat ados)

2. BLOKEA: ESKUBIDEAREN ONDORIOZKO ETXEBIZITZAK ESLEITZEA





Ados al zaude eskubidearen ondorioz etxebizitzak/bizitokiak esleitzeko aurreikusi den baremoarekin? (Hauek baloratzen dira: erregistroan, alokairuko araubidean, inskripzioa noizkoa den; bizikidetzaren unitatean zenbat diren; diru-sarrerak zenbatekoak diren; eskatzailea non erroldatuta dagoen, eta etxebizitzarako premia berezirik baden)




Baldin etxebizitza-kupo jakina gordeko balitz Etxebizitzarako Eskubide Subjektiboa betetzeko, zer portzentaje irudituko litzaizuke horretarako egokiena?

Eskubidearen ondorioz etxebizitzak esleitzerakoan, zer lurralde-eremu izan behar litzateke kontuan zure ustez?






Gaur egun, alokairu-errenten gehieneko prezioak eta etxebizitza publikoen alokairu-errenten hileko kanonak 150-350 € tartean daude logela bakarreko etxebizitzetarako, eta 180-420 € bitartean bi logelako etxebizitzetarako (bizikidetz-unitatearen diru-sarreraren % 30 da muga). Zer iruditzen zaizkizu gehieneko prezio horiek?




Eskubidea aitortzeko beste eskabiderik ukatu behar al litzaioke eskatzaileari, lehendik etxebizitzetan txikiziorik egin badu edo bandalismo ekintzaren bat egin badu?


3. BLOKEA: ETXEBIZITZARAKO PRESTAZIO EKONOMIKOA (EPE)



Zer iruditzen zaizu EPEetarako hileroko zenbateko maximoa 250 eurokoa izatea 2017. eta 2018. urteetarako?






Demagun ahaidetutako bizikidetz-unitate bi edo gehiago bizi direla elkarrekin etxebizitza batean. Zer irudituko litzaizuke halakoetan EPEa unitate bakarrari ematea?



Eta, unitate horiek ez balira ahaideak, ondo irudituko litzaizuke gehienez bi EPE eman ahal izatea etxebizitza berean bizi badira?

4. BLOKEA: ADMINISTRAZIOKO KONTUAK



Jarraian, labur azaldu dira **Etxebizitarako Eskubide Subjektiboari** buruzko herritarren inkestako emaitza nagusiak:

- Herritarren % 45en ustez, **eskubideaz baliatzeko 3 urteko gutxieneko antzintasuna eskatzea gehiegizkoa** da. % 40k uste du egokia dela, eta % 11ri ez zaio nahikoa iruditzen.
- Eskubidea lortzeko jarritako **urteko gehieneko diru-sarreraren mugak egokiak** direla uste du herritarren % 44k.
- Partaideen % 65 **ez dago batere ados edo ez dago oso ados atzerriko nazionalitatea dutenek, egoitza-baimena eduki gabe ere, eskubide horren titularra izateko aukera edukitzearekin** (% 40 eta % 25, hurrenez hurren).
- **Eskubide hau izateko lehentasuna** zein kolektibori emango ote lioketen galdetzean, lehentasunezkoen artean hauek daude: **mugikortasun urriak eragindako ezintasuna edo ezintasun psikikoren bat dutenak** (4tik 3,3), **etxetik botatako jendea** (4tik 3,3), **genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak** (4tik 3,2) eta **70 urte edo gehiagoko jendea** (4tik 3,2). Erantzun duten pertsonen artean sexuari erreparatzen badiogu, **emakumeek beste edozein kolektiboren aurretik jarri dituzte etxetik botatako jendea eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak** (4tik 3,4 bi kasuetan). **Gizonen ustez, berriz, kolektibo horien lehentasunak laugarren eta hirugarren postuan beharko luke; hurrenez hurren, 4tik 3,2 eta 3,1eko puntuazioekin.**
- Parte hartu duten herritarrak **nahiko ados** daude dekretuaren zirriborroan eskubidea baliatu ahal dezaten pertsona jakin batzuentzat ezarri diren **salbuespenekin**. Kasu guztietan 4tik 2,8 eta 2,6 arteko puntuazioa lortu da.
- Dekretuaren ondoriozko etxebizitzak esleitzearekin lotuta, herritarren % 47 **nahiko ados** dago **esleitzeko aurreikusi den baremoarekin**. Eskubide hori betetzeko gorde beharko litzatekeen **gizarte-etxebizitzaren kupoari** erreparatuz gero, **herritarrek ez dute aukera garbirik ezarri**, baina % 50 eta % 75 bitarteko aukerak jaso du babes gehien. Gainera, esleitzerakoan kontuan hartu beharko liratekeen **lurralde-eremuen artean balorazio altuena eremu funtzionalak lortu du** (inkesta egin duten pertsonen % 32).
- **Alokairu-errenten gehieneko prezioak eta etxebizitza publikoen alokairu-errenten hileko kanonak egokitzat** jotzen ditu herritarren % 70ek.
- Eskubidearen ondoriozko etxebizitzetan lehendik **txikizioak egin badira edo bandalismo-ekintzaren bat egin bada, eskari berriak egiteko aukera behin betiko ukatu beharko litzateke**, herritarren % 65en ustez.

- Etxebizitzarako Prestazio Ekonomiaren (EPE) **gehieneko hileroko zenbatekoa 250 eurokoa izatea egokia** da herritarren % 55en iritziz. Halaber, inkesta egin duten pertsona gehienak **nahiko ados edo guztiz ados daude** (% 51) **ahaidetutako bizikidetzaren unitate bi edo gehiago elkarrekin etxebizitza batean bizi direnean EPE bakar ematearekin, baina ez hainbeste** (% 48k erantzun du ez dagoela oso ados edo ez dagoela batere ados) **unitate horiek ahaideak ez balira bi EPE eskuratzeko aukera izatearekin.**
- Dekretuaren zirriborroan aurreikusitako administrazio-kontuei dagokienez, herritarren % 69k uste du **gehiegizkoa dela Administrazioak eskubidea aitortzen duen ebazpena emateko duen sei hilabeteko gehieneko epea.** Halaber, % 63ren ustez, **etxebizitza-eskatzailen baldintzak berriz aztertze epea urtebetetik beherakoa izan behar da.**
- Azkenik, herritarren % 82ri **ondo iruditzen zaio eskubidearen titularrak etxebizitza esleitu zaionean atzera egiteko aukera izatea inongo ondorioz gabe** (% 29k aukera hori gehienez behin emango luke; % 26k, bi aldiz, eta % 27k ez luke aukera-mugarik ezarriko).